



HONDARRIBIAKO HONDARTZAKO INGURUMEN-KALITATE POLITIKA



hondarribia.org

Hondarribiko Udalak hondartzaren ingurua eta natur balioak babestu nahi ditu, **ingurumenarekiko kalitatezko zerbitzu eramangarria** eskainiz. Hori dela eta, **Hondarribiko Udalak** **“ingurumen-kalitatea”** kudeatzeko sistema bat jarriko du abian **Hondarribiko hondartzan**, honako araudien arabera: Ingurumenaren Kudeaketarako **UNE-EN-ISO 14001:2004** araudia eta Kalitatearen Kudeaketarako **UNE-EN-ISO 9001:2008** araudia. Kudeaketa sistema horren helburuak hauek dira:

- ✓ Inguru gaineko eraginak aurrezaintzea
- ✓ Hondartzaren garapen eramangarria ziurtatzea, bertako ekosistema babestuz
- ✓ Hondartzaren erabiltzaileen beharrak eta espektatibak asetzea, mugikortasun arasoak dituzten erabiltzaileen beharrak ere kontutan hartuz.
- ✓ Hondartzako aisialdiko ekintzak bultzatzea, erabiltzaileen parte hartzea sustatuz.
- ✓ Indarrean dauden lege eta araudiak betetzea.

Hondartzako konpromisu nagusia ondorengo ataletan laburtzen da:

- **Ingurumen-jarduera** egokia bermatzea.
- Hondartzaren erabilera **ingurumenarekiko errespetuarekin** bateragarri egitea, baliabideak kudeatuz eta **kutsadura aurrezainduz**.
- **Legedia** eta hondartzaren jardunbide egokirako eskuratuta dauden bestelako konpromisoak **betetzen direla ziurtatzea**.
- Mugikortasun arazoak dituzten erabiltzaileen hondartzarekiko irisgarritasuna erraztea.
- Erabiltzaileen eskakizunak betetzea, **kalitatezko zerbitzua** eskainiz eta azpiegiturak egoki kudeatuz, erabiltzaile horiek aukera izan dezaten inguruaz gozatzeko irisgarritasun eta segurtasun baldintza egokitan.
- Erabiltzaileen **parte-hartze aktiboa** bultzatzea, beren ohar, kexa edo iradokizunak aintzakotzat hartuz
- Ingurumenaren Kalitateari buruzko **formakuntza** ematea hondartzaren kudeaketaz arduratzen den langileriarri, beren kontzientziazioa, sentsibilizazioa, inplikazioa eta parte-hartzea hobetzeko
- Udaletxetik kanpoko pertsonen **laneratzea erraztea**, hondartzarako aisialdiko zerbitzuak eskainiz.
- Erakundearen eta erabiltzaileen **ingurumenarekiko jarduera hobetzea**, ingurumena babesteak duen garrantziaren inguruko informazioa zabalduz.
- **Ingurumenaren kalitatea kudeatzeko politika hau hedatzea**, behar bezala iritsi dadin bai langileriarengana zein erabiltzaileengana eta kontratatutako enpresengana.

Hondarribiko hondartzako zerbitzuaren etengabeko hobekuntza bermatzeko nahian, **Hondarribiko Udalak** urteroko **helburuen programa** bat zehaztuko du eta aldiari aldiari auditoriak eta urteroko emaitzen azterketak abian jarrito ditu.

2010 eko martxoaren 12an onartua,
Aitor Kerejeta Cid (Hondarribiko Alkatea)